

Proiektu deialdia

Idazketa-tailerra
zinema egileak lagundu haien
praktikan eta haien ibildide
profesionalean

Bi asteko tailerra
Ospitalean (Irisarri)



kirikoketa

KIRIKOKETA, zinema egileak lagundu haien praktikan eta haien ibildide profesionalen.

Bi astez antolaturik, Kirikoketa idazketa tailerrak laguntza profesionala eskuratzeako aukera ematen die idazlei, edozein esperientzia izan dezan, haien film proiektuak gara ditzaten, bereziki idazketa fasean. Kirikoketaren helburuak hauek dira: proiektuaren indarrak eta berezitasunak agerian uztea eta idazle bakoitzarentzat bere bidea topatzea ikuspegi zinematografiko ezberdinetan. Horretarako, proposamena hiru denboratan pentsatua da:

- Denbora bat proiektuak kanpoko begiradatik aztertzeko, tutoreena bai eta kideena ;
- Bakarkako denbora bat urruntasuna hartzeko eta idazteko pista berriak esperimintatzeko ;
- Buruz-buruko hitzorduak tutoreekin eta kanpoko hizlariekin ingurumen profesionala hobeki ezagutzeko.

Tailer horrek parte hartzailea bere proiektuaren idazketan aitzinarazi nahi du.

HAUTAGARRITASUN BALDINTZAK

Proiektuek gutienez ondoko irizpide bat bete behar dute:

- Idazlea Pirinio Atlantikoetan bizi da
- Idazlearen proiektua euskaraz da
- Idazlearen proiektuak kultur harreman azkarra du Euskal Herriarekin (gaia, grabaketa lekua,...)

Hautagaiek frantsesaren ezagutza onak behar dituzte, trukaketak segitzeko eta tutoreekin bai eta beste parte hartzaileekin solasteko.

Onartuak dira: ale bateko proiektuak, dokumentalak eta fikzioak (animaziorik ez), film laburrak, ertainak zein luzeak.

Gehienik 6 proiektu hautatuak izanen dira idazketa tailerran parte hartzeko.



EGITARAUA ETA TUTOREAK

Idazketa tailerra bi astez iraganen da: irailaren 11tik 15era eta urriaren 23tik 27ra, proiektuaren partaide den Irisarriko Ospitalean, Departamenduko ondare hezkuntzarako zentroan. Deialdi honetan parte harturik, hautagaia engaiatzen da tailerraren datetan libro izatera eta bere osotasunean segitzera.

Tailerrak aldizkatuko ditu taldean eginen diren solasaldiak eta banakako kontsultak tutoreekin. Hau izanen da antolaketa bi saioetarako:

- Astearen lehen erdia trukaketa kolektiboei dedikatua izanen da. Proiektu bakoitza artoski aztertuko da, honako helburuekin: proiektuaren indarrak eta ahuleziak identifikatzea, entzuteko eta analisatzeko gaitasunak lantzea, intenzioak azkartzea eta idazketarako bide berriak agerraraztea. Denbora kolaboratibo horren plantan emateko, parte hartzaileak proiektu guztiak irakurtzera engaiatzen dira. Proiektuak saioak hasi baino 10 egun lehenago partekatuak izanen dira.
- Astearen bigarren erdia bakarkako lanean oinarrituko da. Bakoitzak ukan dituen oharak aztertuko, sailkatuko, narrazioaren hariak hierarkizatuko eta idazteko pista berriak garatuko ditu. Zati hortan, tutoreekin buruz-buruko solasaldiak izanen dira, ondoko helburuekin: idazle bakoitzaren intenzioak sakontzea eta lan egiteko metodologia plantan ematea.
- Arloko beste profesionalekin hitzorduak antolatuko dira, sorkuntzaren beste aspektuak ezagutarazteko (casting-a, idazteko diru laguntzak,...)

Lehen astean finkatuko den helburuaren arabera, parte hartzaileek haien proiektuak berriz landu beharko dituzte.

OSTATALEKUA ETA BIDAIA

Kirikoketa idazketa tailerra urririk da.

Antolatzaileek hartuko dute haien gain:

- Bi joan-etorriak (parte hartzaile bakoitzak antolatu beharko du bere bidaiia)
- Bi asteetako apairu guztiak
- Lo egiteko lekua bi astez (asteleheneko 9:00etatik ostiraleko 17:00ak arte)

TXOSTENEN BIDALKETA ETA ENGAIAMENDUA

Txosten bat aurkeztuz, hautagaia tailerra bere osotasunean, hau da bi astez, segitzera engaiatzen da.

Hautagaitza txostena osatzeko elementu horiek beharrezkoak dira:

- Laburpen bat (lerro batzuk)
- Sinopsi bat (3 orrialde gehienez)
- Intentzio nota (orrialde bat gehienez)
- Biografia laburra
- Filmografia bat (ahal den neurrian)
- kontaktu fitxa bat, helbidearekin, telefonoarekin eta e-mailarekin.

Baliagarri kontsideratzen diren dokumentu bisualak edo idatziak eransten ahalko dira:

- Moodboard bat
- Egindako filmen loturak
- Gidoi baten pasartea (3 orrialde gehienez)

Txostena frantsesez idatzi behar da. Laguntza behar baduzue itzulpena egiteko (euskaratik frantsesera), gurekin harremanetan sar zaitezke koord@zukugailua.eus helbidera idatziz.

Txostena fitxategi bakar batean bidali beharko da 2023ko **ekainaren 11a aitzin, koord@zukugailua.eus helbidera.**

Mailaren objektuan ondoko informazioak zehaztu:

KIRIKOKETA IDAZKETA TAILERRA #2 / Izena eta DEITURA

EGUTEGIA

- Proiektu deialdia 2023ko maiatzaren 9tik ekainaren 11ra idekia izanen da.
- 2023ko ekainaren 12tik uztailearen 13ra proiektuen hautaketa komite batek eginik.
- 2023ko uztailearen 13an, berantetik, ebazpenaren komunikazioa.
- 2023ko irailaren 11tik 15era: lehen astea.
- 2023ko irailaren 16tik urriaren 22ra: idazketa lan pertsonala.
- 2023ko urriaren 23tik 27ra: bigarren astea.





TUTOREAK

Laurie Bost

Letretako eta Gidoigintzako ikasketak burutu zituenez geroztik, Laurie Bost-ek zineman lan egiten du gidoilari eta gidoi-aholkulari gisa. Halaber, Sébastien Savinekin batera zenbait film labur zuzendu ditu, hala nola Le Python eta L'île et le continent (Beaumarchais-SACD beka, Bresteko Film Laburren Festibal Europarreko Manifest saria). Egun bere lehen film luzean ari da lanean, Junon, Fémis eskolako Gidoi Atelierrean hasi lanari jarraiki. Ber denboran lizeotarrentzako idazketa atelierrak animatzen ditu.



Itziar Leemans

Itziar Leemansek Historiako masterra bururatu zuen 2005ean Tolosako Le Mirail Unibetsitatean. 2012an Cubako San Antonio de Los Baños zinema eta telebistako nazioarteko eskolako (EICTV) diploma lortu zuen. 2015ean bere lehen dokumental luzea egin zuen: Parque Lenin (film luze onenaren saria Moskun); eta 2018an lehen fikziozko film laburra: Bainera (Donostiako Nazioarteko Zinemaldirako hautatua). 2020an bere bigarren dokumental luzea bukatu zuen: Boca Ciega (Créteileko Emazte-Filmen Nazioarteko Zinemaldirako eta Gindouko Zinema Topaketetarako hautatua). 2023ko apirilean, bigarren fikziozko film laburra Ximinoa bukatu du, bai eta hirugarren dokumental luzea, Olatuak. Egun bere lehen fikziozko film luzea idazten ari da: Agurra.

ANTOLATZAILEA

Zukugailua

www.zukugailua.eus

2020an sortua, Zukugailua elkarteak zinemagintzan ari diren Ipar Euskal Herriko profesionalak biltzen ditu. Zinema eta ikus-entzunezko sorkuntza bultzatzea, sustengatzea eta bizkortzea du helburu eta lau ardatzen inguruan egituratu du bere proiektua: sorkuntza, mugaz gaindiko harremana eta ko-produkzioa, irudiari heziketa eta profesionalen saretzea.



LEKUA

OSPITALEA, DEPARTAMENDUKO ONDARE HEZKUNTZARAKO ZENTROA

Ospitalea XVII. Mendeko komanderia da, monumentu historikoetan izendatua izan dena. Donibane Jerusalemeko ordenako Zaldun Ospitalariek sortu zuten, XII. mendetik Irissarrin plantatu baitziren ziren lurraldeak lantzeko. Komanderia Baxenabarreko baserri tradizionalen adibide monumentala da.

2002az geroztik, eraikin ikaragarriak Pirinio Atlantikoetako Departamentuaren ekimenez Departamenduko Ondarearen Hezkuntzarako Zentroa aterpetzen du.

Sormen- eta idazketa-egonaldietarako leku egokia

Baigura mendiaren hegalean, eraikin eskerga honek barnera begiratzeko eta idazketa lanerako inguru natural bikaina eskaintzen die egonaldiko parte hartzaileei. Lekuaren harrera ahalmenari eta lan espazio ugarietako esker, gune egokia da bakarkako zein taldeko sormen egonaldiak antolatzeko. Ospitaleko indarguneak –langileen trebetasuna batetik eta erakusketa- eta mintzaldi-aretoak bestetik– egoiliarren esku ezartzen dira haiek beren lana aurkeztu eta aitzinamendua parteka dezaten. Ber denboran, eskualdeko publikoa eta profesionalak ezagutzeko parada dute.



kirikoketa

Erakunde horien partaidetza eta laguntzarekin

